

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Marko Polo nafarra



Ezkerrean, Benjamin Tuterakoaren erretratua. Goian, Borsippako (egungo Birs Nimrud, Irak) zigurataren arrastoak; Benjaminek ikusi zituenean, Babelgo dorrearen arrastoak zirela idatzi zuen.

TUTERA, 1130. Benjamin, Jonas errabi-noaren semea, jaio zen. Datu gutxi ditugu Benjamin Tuterakoaren bizitzari buruz. Bere buruaz baino, nahiago izan zuen inguruan ikusten zuenaz idatzi. Eta gauza asko ikusi zituen Erdi Aroko bidaiari nagusietakoak.

Historian aditua zela dakigu eta, gutxienez, hebreeraz, arameeraz, grekoz, latinez eta arabieraz hitz egiten zekiela. Hainbat idazlek errabinoztzat jo izan badute ere, gaurdaino ez da horren frogarik aurkitu.

Antso VI.a Jakitunaren erregealdian, 1159. urte inguruan, bidaia luzea hasi zuen Benjaminek, zenbait adituk urte batzuk geroago abiatu zela esan arren. Ia hamabost urte iraun zuen bidaiaren helburua ere ez dakigu, baina harribitxien eta luxuzko salgaien merkataritzan aritzen zela dio zenbaitek, besteak beste, idatzietan koralaren inguruko interes bizia agertu zuelako.

Ebro ibaiaren haranean behera, Barzelonaraino iritsi zen. Handik Marseillara joan zen, eta bertan itsasoratu zen, Italiar penintsulara bidean. Italia utzi eta Grezia zeharkatu ondoren, Konstantinoplara iritsi zen. Besteak beste, Antiokia, Tiro, Palestina, Damasko eta Bagdad bisitatu zituen. Ziur aski, Mesopotamia eta Pertsiaraino iritsi zen, baina ez dirudi ekialderago joan zenik –India, Zeilan eta Txinako Kai Fong-

eko judutar komunitatea hizpide izan arren, paraje hurbilagoetan bildutako informazioa baliatu zuela dirudi—. Tuterara itzuli baino lehen, Egipton eta Sizilian izan zen. Orotara, Europako eta Asiako 190 hiri bisitatu zituen. 1171n edo 1172an etxeratu eta handik gutxira hil zen, 1173an.

Burututako bidaia xehe-xehe bildu zuen hebreeraz idatzitako lanetan. *Sefer Masaot* (bidaia liburua) 1543an argitaratu zen Konstantinoplan; gaztelerazko hiru edizio daude, baina euskarazko itzulpenik ez da oraindik argitaratu. Judua izanik, Benjamin Tuterakoak bidean topatu zituen judutar komunitateak aztertu zituen bereziki. Baina juduei buruzko iturri historiko bikaina izateaz gain, Benjaminen liburua garai-ko gertaera politikoei eta gizarteei buruzko dokumentu aparta da. Aditu askoren esanetan tuterarraren idatziak Marko Polorenak baino zehatzagoak dira. Marko Poloren bidaia liburuari *Milioia* deritzo, veneziarraren gehiegi-keriarako joeragatik, hain zuzen.

Iruñeko kale batek bidaiariaren izena dauka, Tuterako ikastetxe batek ere bai eta, aste honetako Ihesi atalean azaltzen den moduan, oroitarri bat ere badu Benjaminek sorterrian. Baina ez du Marko Poloren osperik lortu, Asiarra bidaiari veneziarra baino ehun bat urte lehenago joan arren.

Arrastoak

Shakespeareren aurpegi berria

WILLIAM SHAKESPEAREren erretratu urriak benetan idazleari egindakoak ote diren eztabaidatu izan da sarri, eta aldiro berriak agertu ohi dira. Oraingoan, Stanley Wells Birminghameko unibertsitateko irakasle eta Shakespeareren aditu nagusietakoak beheko erretratua idazle handia bizirik zela egindako bakarra dela esan du berriki. Edo hori hala izateko %90eko aukerak daukela, behintzat.

Margolana familia beraren eskutan egon da azken 300 urteetan. Baina jabeek uste zuten Sir Walter Raleigh, Elisabet I.aren babespeko esploratzailearen erretratua zela.

Duela urte gutxi hainbat adituk idazlea hil ondoren egindako sei erretratu ezagunenak aztertu zituzten, eta fidagarriena Chandos-eko erretratua zela ondorioztatu zuten. Horrek ez du, ordea, erretratu berriarekin antza handirik. Hau al zen idazlearen benetako itxura? Ala hemendik gutxira Shakespeare berria agertuko da?

